

## ESPEZIALITATEAK ZABALIK BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN ETA LANBIDE-HEZIKETAKO SEKTORE BEREZITAKO IRAKASLE ESPEZIALISTEN KIDEGOAN

### Eskabideak aurkezteko epea: irailaren 19tik 25era arte

252/2023 EBAZPENA, irailaren 18koa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez prozeduren deialdia egiten baita zenbait espezialitate eta hizkuntzatan berariazko zerrendak irekitzeko eta irailaren 29ko 31/2020 Errege Lege-dekretua aplikatuz izangaien zerrendak osatzeko, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasle lanpostuak aldi baterako betetze aldera.

### GAZTELANIAZ irakatsi beharreko espezialitateak

#### 590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Alemana
- Latina

#### 598 - Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoa:

- Patroigintza eta Jantzigintza

### EUSKARAZ irakatsi beharreko espezialitateak (betekizuna: EGA edo baliokidea)

#### 590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Enpresen administrazioa
- Alemana
- Marrazketa
- Marrazketa, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Ekonomia
- Filosofia
- Filosofia, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Geografia eta historia
- Esku-hartze soziokomunitarioa
- Esku-hartze soziokomunitarioa, ingelesezko C1 hizkuntza- eskakizunarekin
- Latina
- Gaztelania eta literatura
- Hezkuntza-orientazioa

Eskabideak eta agiriak **bakarrrik modu telematikoan** aurkeztu behar dira, honako webgune honetan, **TRAMITAZIOA ataleko “Tramitatu”** botoia sakatuta:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Apertura-de-listas-especificas-mediante-incorporacion-periodica-de-aspirantes-en-determinadas-especialidades-e-idiomas-1>

Hor azaltzen diren urratsak bete behar dira, eta agiri hauek **SOILIK** erantsi:

- **Indarrean dagoen NANaren** edo nortasun-agiri baliokidearen kopia eskaneatua, bi aldeetatik egina eta dokumentu bakar batean aurkeztua
- Espezialitaterako **eskatzen den** indarreko **tituluaren** kopia eskaneatua, bi aldeena, eta dokumentu bakar batean aurkeztua. Fitxategi bakarra aurkeztu beharko da titulu bakoitzeko, hala xedatzen baita Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 1. puntuan
- Zerrendan sartzeko betebeharrak modura alegatu den tituluaren indarreko **expediente akademiko** ofizial osoa, ziklo guztiei dagokiena, zeinetan agertuko baita batez besteko nota, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- Euskaraz irakatsi beharreko espezialitateetarako: **EGA** titulu edo baliokide indardunaren kopia eskaneatua, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- **Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko** masterra edo baliokidea, indarra duena, dokumentu bakar batean aurkeztua, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 2. puntuan xedatutakoarekin bat.

Gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak edo beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial berekian idatzitakoak. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek, eta agiriarekin batera aurkeztu beharko dira.